

BITTOR KAPANAGA

Nire Bittorrenganako historia edo Bittorren nireganakoa 1974ko Santa Mañetan hasi zen; Otxandion, kantuan hasi berri nintzelarik, 48 urteko ile zuridun gizonetzko bat hurbildu zitzaidan kantaldi ostean, eta halaxe eta hantxe hasi zen gure adiskidetasun sendoa.

Harreman estua sortu zen biongan eta ordudanik, Bittor maisutzat izan dut gai askotan, euskararen gaietan zer esanik ez. Elkar ezagutu eta lasterrera, berak hitzak eta nik musika jarritz, geroan oso ezagun egingo ziren kantuak sortzen hasi ginen. *Bagare, Laster, Herria maiatzeko ...*

Zendu zeneko azken gaua bere ondoan igaro nuen Gasteizko Santiago Ospitalean, eta hantxe, berarekin hizketan banengo legez hasiko da lantzen ari naizen Bittorren izakera, bizikera, pentsakera eta ideiei buruzko liburua.

Gertutik ezagutzeko zoria izan dut eta honetan ba, Bittor nor zen aurreratzen dizuet. Gure lurak eman izan digun berezko arbola berezia. Lurretik bertatik, lurraren sakon sakonek gorpuztutako ideia argi eta harrigarriak eman izan zizkigun gizon misterioetsua; bizitza bera eta euskera, gure altxorrik ederrena, misterioz beterik zegoela esaten ziguna, eta hortantxe bere bizitza osoan hizkuntzaren barruak arakatzen buru-belarri ibili izan zena. Antzinateko euskeraren erreferentea eta lekuakoa, eta gerorako baliogarri izan dakigukeen erakarlea.

Bittor, gure aztarnetan zebilen gau eta egun, iraganeko bi-deak aztertzen, logika eta arrazonamenduz beteriko lanetan, jatorrizko eta intuiziozko eredutan, behin eta berriroko misterioaren bueltan eta beronen bilaketan eta urraketan. *“Hizkuntza da herri baten jakintzaren biltegia eta iraunerazlea, eta aintzinako pentsakera, erligioa, bizikera zer zen ikusteko argi-biderik ederrena euskera dugu”*.

Bittorrentzat, pentsatzea, filosofatzea, munduan egoteko eta munduan ibiltzeko modua zen. *“Garaunak ez ugerteko pentsatzealakorik ez dago eta nire teilak zahar daude baina itogin barik”* horixe zinostan orain gutxi, eta halaxe, gorputzez makal baina buru argiz aurtengo uztailaren 14n hil zen Otxandiko jakintsua.

Socrates filosofoaren antzera, iritziak esaten eta konpartitzen ibiltzen zen Bittor, idatzi hainbat egin bazuen ere, berbetan azalduko zizkigun bere teoriak, bere nahierak eta grinak. Entzuleak, entzuteko eta ikasteko prest zeuden gazteak, sarrian sarri hurbiltzen zitzaizkion .

Euskera bere barruan aztertu izango zuen Bittorrekin, eta honen gainean dialektika on baterako prest aurkituko zenduen noiznahi. Erantzunak baino, galderak ziren berak azalduko horiek, bideratutakoak erantzun baten seinaleak zirelakoan, zeren *“kasualitatea behin eman liteke, birritan edo birutan gertatzen denean, zerbait dagoela pentsatu behar”*.

Bittorrentzat euskera, aspaldiko garaia, izan zenaren mundu haren egitura eta pentsakera azaltzeko gailua izango da, *“harridura askoren iturburu”* eta arlo semantikako ikerketa egitea derrigorrezkotzat ikusiko zuen.

Bere ustez, bizirik dugun antzinako gure hizkuntza hau, bide egokia da atzotik haratagoko gauzak aztertzeko eta egungo eta geroko gauzak ere argiagotzeko. Bittorren iritzian, euskerraren egiturak, bizitzak garaian garaiko egin izan duen eboluzio fonetiko eta lexikalaren bide beretsua jarraitu du.



Euskeraren jatorriaz, hitzen eta fonemen esanguraz jakinmina duenak, irakur beza Bitorrek 1978an idatzitako *“Erro eta Gara”* bere liburu esanguratsua.

Izatasun, egintza(intasuna) eta ukatze(getasuna)

zentzuetan, irukoitasun berdina genuela zioen; beraz, Bitorrentzat oinarritzko usteak hauexek lirateke:

-	IZATASUNA	EGINTZA	GETASUNA
Lehenena	IZ	IN	IL
2-na	AR-UR	UK	U
3-na	GO	GI	GE

“Badakit nire liburu hau ez dagoela zentzu zientifiko baten aurkezturik, baina guztia da egi gure hizkuntzan eta ez baitut espekulazio filosofikoetan edo elukubrazio dialektikoetan ezer sortu, errealitate linguistiko probatuak dakarzkizut eta beraiei adierazpen posibleak azaltzen dizkizuet”.

Bitorrek bakarrean egindako ahaleginak goraipatzea merezi du. Bere kabuz ibiliko zen beti, libre eta solte. Nabarmen zituena bere bi nolakotasunak: bere buruaren jabetza eta inguruarekiko ardurakoitasuna, baina gaurko gizarteak eskatzen digun tituludun gizakia ez zenez, ofizialtasunak eta erakundeak ez zuten aintzakotzat hartuko, ez eta bere teoriak kontutan hartuko ere. Historian zehar sarri gertatu izan da holakorik, ostrazismora zokoratuak izan diren gizakiak askotxo izan dira, baina inoizko baten, Bitorrek azaldutako horiek indarra hartuko dutelakoan eta gerorako argibide izango direlakoan nago. Zorretan gaude beraz.

- Gizakia, jaioten denetik heriotzaraino bat bera izaten da, beraz, ni neuk naizenari egiten diot kasu eta naizen moduan bizi eta halaxe hilgo naiz.
- Baina libre izateak prezio gogorra dakar!.

- *Besteen esklabu izateak baino gitxiago.*

Hizkuntzaren gaiiei buruz, azalean askotxo ari direlakoan, zuztarretan zebilen Bittor, eta zuztarretatik ateratzen zuen mamia eta zukua. Berak esana da 1979.urtean “ *Orain berrehun urte, bibliako sustraiz eratua ez zan teoriarik ezin zitekeen atera hizkuntza arloan ere; gaur, latin hizkuntzaren garaian oinarritua behar dugu guztia, borrelaxe dalako gure arlo honetako jaunburen eretxia eta gogoa; Latinopatiatz jota bizi diren euskalariak asko daude gure artean. Gaur, beste arlo askotan bezela, itxitasuna eta itsutasun haundia dakust inguruan, bai jakintza arloan, politikan eta beste askotan. Baliteke geroago, hemendik larogei urtera, edo, (hil eta gero danak izan ohi dire on eta arrazoidun) norbaitek bide hori berriz aztertzea*” . “*Omerta legearen erreinuan bizi gara*”, errepikatzen zigun aldika.

Gure hizkuntza gaiak ikertzen ari direnentzat, linguista edota filologoentzat Bittorrek eredu argiak utzi zizkigun orain eta geroan jorratzen joan daitezen.

Askok uste dute periferiatik, azaletik aztertu behar direla gauzak, hori bakarrik dagoela uste dutelako. “Iputargien dizdiratxoetan ohartuz liluraturik ageri da zenbait, baina arauzko eguzki baten argia itxoiten garenak gehiago gara.”

Sakontasuna superstiziotzat dute baina konturatu beharko ginake, hostoa arramari lotua dagola, arrama enborrari, enborra lurrari eta lurra izartegiak sortzen digun gorabeherei. Beraz, hostoa aztertzean, ekin daiogun enborra eta lurra aztertzeari, eta inguruak eragin dion guztiari.

Hau, osasuna aztertzea lakoa da, buruan dugu min baina nondik datorren aztertu beharra dago eta agian buruko mina giblean hasten da, horixe da aztertu behar duguna.

Bittorrek indukzioz aztertzen zuela zioen Andolin Eguzkizak, eta honetan Bittorrek honako hau esango zion “*Coperni-*

cok ere indukzioz aztertzen zituela gai astrologikoak eta ondoren harrigarrietara heldu: lurra bera zebilela eguzkiaren inguru jiraka, eta izartegiak(gaur ontzat ematen dugun bezela) bere arauen bidez jokatzten zuela. Baina orduko "texto zaharrek" besterik zioten eta indukziozko idorokuntzak kondena-garriak ziren.

Bitorren ustetan, fonema guztiak bere eboluzio naturala dute eta fonemen eta hitzen aztarnetara joatea derrigorrezko dugu beste hizkuntzekin konparaketak egiterako orduan, beraz, Sumerio hizkuntzan eta Dravidikoan agertzen diren antzeko fonemak, orduko euskera izan zitekeenean aztertu beharko genituzke. Orduko biztanleak fonema gutxi batzuekin moldatuko ziren, eta apurka-apurka modurik naturalean eta gauzak adierazteko premian aurkiturik, garatzen joango ziren. Euskeraren eraketa, eboluzio fonetiko-lexikalaren eboluzioan egin izango zen, eta Bitorren ustez, hasierako bidearen ezaugarritasunak, **izatasuna, egintza** eta **getasuna**, bizibideko kontzeptu legez gorpuzten joango ziren. "azpitik gorako indarrez" datorkigula bizialdi hori jakinaraziko zigun Bitorrek.

Honelako hau idatziko zion 1983. urtean bere laguna zuen Andoni Eguzkitzari: "*Hemen, Ataungo zaharra kenduz gero inor gutxi arduratzen da jakintzaz, benetako jakintzaz, gauzak objektiboki ikertzeaz. "Ni", "nik" eta "nigan" dira hitzik garrantzitsuenak idi sakaratuen artean". Pisudun gizakien eza baitago gure "jakintsuen artean". "Egozentrokeriak uzteko garaia dugu. Eta dogmak lasaiki jarri orde, jakintza bideetan saiatu eta benetako izakizunak jarraitzekoa ere"* dio bere liburuan.

Bitorrentzat, gure hizkuntzak duen gauzarik preziatuena, bere egitura eta urruneko sakontasuna da. Eta bi eredu horiekin baliatu beharko lirateke linguistak.

Bazekien hizkuntzaren atzean, mundu zabal bat dagoela, pentsakera bat, bizikera bat. Antzinako garai bat ei egoan,

pentsakera aldetik oso aurreratua zena; euskeraren eraketa ikustea besterik ez honetaz konturatzeko. *“Hor lan intelektual sendo bat dago eta ez egitura simple bat, eta horixe da aztertu behar duguna. Zeren egitura horiek oraindik zorionez bizirik dira eta azetzea geuri dagokigu”*. Baina nondik eta zelan aztertu behar den oso zen garrantzizko Bittorrentzat, zeren, bide okerretik joanik erantzun traketsak atera daitezke. *“Ondo aztertu ezik labankada ederrak egin daitekezelako”*.

Bittorrek zubi lana egin izan digu eta bada berak azaldutakoan zenbait gauza, antzina eta geroko bidea argituko diguna. Berak aitortu zigun legez *“Nire ustez, guzti hauetan bada antxinako leinuen eta bide-eraikuntzen aztarnarik”*.

Bere teoretariko bat agertaraziko dizuet, orain barra-barra ZERO zenbakia hutsa bihurtu izan dugu. Ez ba, ZERO: BAT ERE EZ liteke, edota BATEREZ: BAPEZ. Beraz, BAPEZNA amaitu dute eta ez HUTSNA. Hutsa, falta, error edo vacío dugu.

Bittor, ikertzailea, jakintsua eta filosofoa genuen baina olerkiak egiten ere jardun zuen, hemen batzuk:

BAGARE

Araban bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
Ta Bizkaian bagara
Baita ere, Lapurdi ta Nafarran.

Guziok gara eskualdun
guziok anaiak gara
Nahiz eta hitz ezberdinez
Bat bera dugu hizkera.

Herri bat dugu osatzen
berengan gara sentitzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera
Bagire, bagara
euskera azkartzeko
oraintxe dugu aukera.

Bagare, bagera,
bagire, bagara
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera.

GOGOAN MIN DUDANEAN

Gogoan min dut eta
neure barruan sartzen naiz
adore poxi baten bilaka, bilaka.

Inork ez nau ulertzen
edo ez dakit azaltzen
oskol barruan naiz narrazkiak bezela.

Barruan egosten ditut penak
eta besteen aurrean
irri batez estaltzen.

Neronek dakizkit bai neureak
ez, ez dut nahi hutsetan
erruki izan nazaten.

Lainoak estaltzen ditu haitzak
eta loreak lainotan
egiten du nigar.

Ilunak jagoten dit bihotza
Eta nik ilunetan
Indarra dut hartzen.

BIDASOA

Bidasoa, Bidasoa
bide eder baten gisan
behar duzula bai izan
euskaldunentzako pausoa.

Zure gaingo zubietan
bi hizkerak ari dira
horko nagusi baliran
zubien mutur bietan.

Baina uraren gainetik
bada aspaldi honetan
bi aldetako lurretan
beste zubi bat eginik.

Harrizkoa balitz baino
askosaz ederragoa
bideak luzatuz doa
Euskal Herriak direino.

Altzairuzkoak agian
iraute laburra luke
baina beste honek baduke
amaigabeko bizia.

Zurezkoak haritz gihar
ederra beregan badu
honek elkartuko gaitu
berriz harizpetan bihar.

Bidasoa, Bidasoa
izan zakiguz lokarri
lotu gaitzazu alkarri
tinkatuz gure geroa.

Gontzal Mendibil